# Goienkaria

EGUBAKOITZA • IV. urtea

2003ko otsailaren 7a • Doan Banatzekoa • 97. zenbakia




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
**Amodiozko Gutunen Lehiaketako gutun irabazlea**

**LARRAITZ UGARTE** / KRIMINOLOGOA
*"Autonomia Erkidegoko herritar gehienek uste dute espetxeak ez duela ezertarako balio"* **/8-9**

**KIROLA**
**Ibarreko 500 neska-mutiko, Ikaspilota topaketetan /11**

## DEBAGOIENA: TORTURAREN AURKAKO HAINBAT EKIMEN BULTZATUKO DITUZTE /5
## HERRIZ HERRI: LAPURRETAN EGIN ZUTEN EGUAZTENEAN ELGETAKO GAZTETXEAN /7

ASTEKO GAIA: LURRALDE ANTOLAMENDU PLANA /2-3

# Debagoiena, EAEko "hiri" bihurtzeko bidean?

Debagoienarendako hirigintza eta ekonomia arloetako ekimenak proposatu berri dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak, Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Planean. Ekimen horiek guztiak 16 urtean egingo dituzte, eta beroien helburua da Debagoiena biziberritzea, ibarreko populazioa 110.000 biztanlekoa izatera iristea eta, oro har, Debagoieneko bederatzi herriek "hiri" handi bat osatzea.

Proposamenen artean, Urkulun etxebizitza eta aisialdigune bat eraikitzea, ibarreko hainbat industriagune zaharkitu berreskuratzea, autobideak eta tranbia egitea, Garaia proiektua... daude, besteak beste.

- *Ibarreko zerbitzu eta merkataritza arloak indartu nahi dituzte*
- *Orain, Debagoieneko udalek hilabete dute alegazioak aurkezteko*

## *Urkulu, goraino beteta*

Ia goraino beteta zegoela-eta, uhateak zabaldu zituzten eguaztenean Urkuluko urtegian. Bi urte dira Urkulun batutako ura kota gorenera, 333 kotara, heltzeko zorian ez zegoela. Eguaztenean, 332-50 kotara heldu zen urtegian batutako ura. Eta urtegia zaintzen dutenek, urak gorago egin aurretik, uhateak zabaltzea erabaki zuten. Izan ere, euria gogotik egin du oraingo astean: joan den eguaztenetik martitzenera, 263 litro metro koadroko batu dira Debagoienean. Euri jasak arazoak sortu ditu errepidean, eta ibarreko hainbat tokitan gainezka egin du Deba ibaiak, joan den abenduan gertatu zen moduan. Zalantza barik, negu euritsua izaten ari da aurtengoa.

ARGAZKIA: AITOR URIARTE



DEBAGOIENA

### Ez dute egingo Feritur ibarreko turismo azoka

Debagoieneko turismo feria, Feritur, bertan behera geratu da aurten. Maiatzean, hortaz, ez dute turismoari lotutako feriarik egingo. Aurreko hiru urteotan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin antolatu dute Feritur feria Mankomunitateak eta Halcon bidaia agentziak. Aurten, ordea, bi erakunde horiek ez dira ados jarri. /5


MANTENTZE-LANAK ETA INSTALAZIO INDUSTRIALAK

- Mantenimendu orokorra.
- Makinariaren birmoldaketa.
- Automatak programatzea.
- CNC, serbomotoreak, abiadura-aldagailuak, etab...

GURELAN
Muntaia Elektrikoak
[lehen BASILIO GUISASOLA]

30 URTEKO ESPERIENTZIA SEKTOREAN

Tfnoa.: 943 76 07 00 - Faxa: 943 76 56 23 - San Lorenzo, 15 - BERGARA

Ongi etorri Touareg berrira.
Ongi etorri mundura.





Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Touareg



DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Ibarra: EAEko laugarren hiri?

## Ibarra biziberritzeko ekimenak proposatu dituzte erakundeek

LEIRE KORTABARRIA

Urkulun kirola egiteko, arrantzarako eta aisialdirako erabiliko den bigarren urtegi bat egitea, eta ingurune hartan bertan 1.000 hektarea hartuko dituen *eko-hiri* bat eraikitzea; hori da Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoienerako duten proposamenik iraultzaileena datozen 16 urteotarako. Halaxe azaltzen dute erakundeek oraintsu argitaratu duten Debagoieneko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planean. Plan horretan, gure ibarraren egoera ikuspegi guztietatik aztertzen da, diagnosia egiten da eta hainbat proposamen planteatzen dira. Joan den asteaz geroztik, udalen esku dago plana, datorren hilabetean alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

**"EAEKO LAUGARREN HIRIA"**

Lurralde antolamendurako planaren diagnosiaren arabera, Debagoienak "enpresa dinamika oso altua", "hezkuntza maila ertain-altua" eta kultura eta hezkuntza baliabide dezente ditu; baina defizit larriak ere igartzen dizkiote teknikariek: besteak beste, populazioa "desorekatuta" dago, Arrasateren alde, Bergarako eta Oñatiko ibarren kalterako; aisialdirako, kirolerako eta turismorako ez du behar besteko eskaintza zabalik; eta, garraiobideei dagokienez, betiko isolamenduan jarraitzen du ibarrak.

Antolamendu Planaren helburu nagusia da Debagoienak "EAEko laugarren hiri" bihurtzeko behar duen garapena bultzatzea, hemendik eta 2018. urtera bitartean.

**"ARLO DEFIZITARIOENA"**

Populazioari dagokionez, planak proposatzen du Debagoieneko populazioaren pisua Arrasateren, Bergararen eta Oñatiren artean modu orekatuagoan banatzea, eta Antzuola edo Elgeta Bergararekin hobeto konektatzea. Planeko neurriak ezarriz gero, Debagoieneko populazioa gaur egungo 64.900 biztanleetatik 110.000 ingurura pasatuko dela aurreikusten dute.



**URKULUKO 'EKO-HIRIA'** **Urkulu urtegi inguruan 1.200 hektarea hartuko dituen "habitat alternatiboa" egin nahi dute Jaurlaritzak eta Aldundiak. 21 hektarea hartuko dituen 1.000 etxebizitzako atala, 16 hektareako ur parkea eta 94 hektareako parke tematikoa egitea proposatu dute, besteak beste. Etxebizitzez gain, hotelak, kanpalekua... eraikiko dituzte. Horrez gain, Urkulu II urtegia aurreikusten da. Horren inguruan, bizikleta pistak, zaldian ibiltzekoa... egokituko dituzte. Piraguan ibili, arrantza egin... ere aukeran izango dira.**

Biztanleria berria hartzeko, ibarreko "malda leunak kolonizatzea" proposatzen da, "salneurri mugatuko" etxebizitzak eraikiaz. 9.536 etxebizitza berri proiektatzen dira 16 urteotarako. Industrializazioko hainbat gune berreskuratzea proposatzen da, bertan auzo berriak eraikitzeko. Horrez gain, Aramaion, Urkulu inguruan, Elgetan edo Gatzagan hotel, kanpaleku, baserri turismo etxeak... egitea ere proposatzen da. Arrasaten aisialdirako hainbat aukera eskainiko dituen merkataritza etxe bat egitea ere gomendatzen da, baita golf zelai bat ere, Oñatin. Horrenbestez, teknikarien ustez, "Debagoieneko arlo defizitarioena", hau da, aisialdia, turismoa eta merkataritza, biziberritu nahi da.

**ERREPIDEAK ETA TRANBIA**

Ibarreko herrien arteko lotura indartu nahi du Antolamendu Planak, eta ibarrak EAEn duen "kokapen geografiko estrategikoa" aprobetxatzea proposatzen da. Horretarako, planak aspaldiko ekimen batzuei onespena ematen die: Debagoieneko tranbiari, Eibar-Gasteiz autobideari, Beasain-Durango autobideari... Trenari dagokionez, aurreikusten den gauza bakarra da Renferen hurbileko linearekin bat egitea, Goierrin, eta trenarendako zerbitzu baliabideak (kotxetokiak, lantegiak...) Epelen kokatzea. Era berean, garraio mota desberdinen arteko konexioa bermatuko duen geltoki bat proposatzen da, Elorregin.

Ibarrak duen ingurumen balioa sustatzea proposatzen dute erakundeek. Horretarako, Epelen eta Mekolalden Deba ibairako kolektoreak ipiniko dituzte; era berean, ibarreko hainbat gune babesteko proposamenak jasotzen dira: Urkiolako natura-parkea eta Aizkorriko parkea. Eta Albinagoiko pagadia edo Udalatx gune babestu definitzea gomendatzen da.







UDALEN IRITZIA

### Udal plangintzen eta planaren artean kontraesanak daude

**Debagoieneko populazioa 70.000 biztanletan haziko dela, eta horiendako 9.536 etxebizitza egitea proposatzen dute Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak, eta hori izan liteke udalek gehien errefusa dezaketen zatia. Udalek jaso berri dute proiektua, baina batzuek adierazi digute ez daudela ados hainbat proposamenekin. Ibarreko udal batek dio: "Etxebizitzen arloan, adibidez, udalak badu honezkero bere plangintza eta bere irizpideak, eta planak proposatzen duen hazkunde mota eta eraikuntza guneek talka egiten dute udal plangintzarekin. Udalak eta planak proposatutako etxebizitza guztiak egitea larregizkoa izango litzateke. Kontraesanak daude, bai". Udalek hilabete dute alegazioak aurkezteko.**

HORI GUZTIA, NOIZKO?

### Epe luzerako izango dira 'eko-hiria' eta Garaia proiektua

**Ekimen bakoitzari amaiera data posible bat ezarri diote Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak. Epe luzerako proiektu garrantzitsuenen artean, Urkuluko *eko-hiria*, Debagoieneko errepide sarearen amaiera eta hobekuntza eta Garaia proiektua leudeke; horiendako guztiendako, 2018. urtea da zehaztutako muga. Epe laburrena duten proiektuak honakoak dira: Arantzazuko santutegiaren eta hango eraikinen eraberritzea; Mojategiko kiroldegia (Arrasate) eta Gatzaren Eko-museoa (Gatzaga) indartzea; edo Zabaletako (Arrasate) aisialdigunea egitea, beste batzuen artean. 2010erako egitea aurreikusten dira Deba ibairako araztegi sarea edo Oñatiko golf zelaia, besteak beste.**

EKONOMIA

### "Betiko ekonomia arloak" zerbitzuekin bateratzeko nahia

**Ibarrean "enpresa ekimen" handia dagoela onartzen du planak, eta, teknikarien ustez, Debagoieneko "betiko ekonomia arloak" sustatu beharko liratekeela esaten da. Planak "hainbat esku-hartze estrategiko" aipatzen ditu, Garaian (50 hektarea), Garagartza-Berezao inguruan (30 hektarea; Urkulu II-rako sargunea litzateke hau); Eskoriatzan (sei hektarea), Zaldunbiden (Bergaran; sei hektarea); eta Deskargan (25).**

**Nabaria da, gainera, ibarreko zerbitzu, merkataritza eta aisialdi sektorea bereziki indartu nahi dela. Besteak beste, proposatzen dira mendi museo bat, Elgetan; aisialdiguneak Gatzagan edo Urkulun; merkataritza etxea Arrasaten...**

BERRESKURATU ETA BABESTU

### Industriagune zaharkituak aprobetxatzeko politika

**Gaur egun bertan behera utzita dauden industriaguneak etxebizitzak eta zerbitzuguneak eraikitzeko erabili nahi dituzte. Honako guneak aipatzen dira: Antzuolako Lizarraga; Bergarako Algodonera; Elgetako Berraondokua; Arrasateko Zabaleta-Garratz; Cerrajera-Gelma-Gamei, eta Trefasa; Aretxabaletako Beroa-serreria; Oñatiko Cegasa; eta Eskoriatzako Santa Marina. Horrez gain, kultura patrimonioa babesteko ekintzak zehaztu dituzte: Leintz Gatzagako Gatz lantegia; Oñatiko Arrikrutz koba; edo Bergarako Seminarioa aipatzen dira.**

**Babestu beharreko guneen artean, Leintz Gatzagako ibai parkea, Besaide, Elorregi, Gorla, Asentzio, Karabieta edo Usako aipatzen dira.**









**ETXEBIZITZAK** Datozen 16 urteotan, 9.536 etxebizitza egitea proposatzen da; %26, babes ofizialekoak. Hiriguneetan eta malda leunetan eraikitzea eta espekulazioa kontrolatzea aholkatzen da.

**ERREPIDEAK** Eraikitzen ari diren errepideez gain, Elgetaren eta Bergararen arteko eta Gatzagaren eta Mondragoeren arteko loturak hobetu nahi dituzte. Elorregiko "loturagunea" hobetzea ere planteatzen da.

**HONDAKINDEGIAK** Akeiko, Cerrajerako eta Epeleko hondakindegiak kentzea planteatzen da. Hala ere, "Epelen edo itxitako harrobi baten" baso-hondakinak aprobetxatzeko bi hektareako gunea egin nahi dute.

**URA** Proposatzen dute Deba ibairako araztegiak egitea Epelen eta Mekolalden. Bestalde, Urkulun eta Olaten (Oñatin) Debagoien osorako beste bi urtegi eraikitzea proposatzen dute.

*Proiektu handienak Urkuluko 'eko-hiria' eta Garaia egitasmoa dira*

*Zerbitzu eta merkataritza sektoreak dira "defizitarioenak", planaren arabera*

*Planaren irizpideak ez datoz bat, kasu batzuetan, Debagoieneko udalen politikekin*

*Garraioari dagokionez, autobidea, autobia eta tranbia zehazten dira*

febal
Armeko
SUKALDE ITALIARRAK
09:00etatik 12:30era eta
16:00etatik 20:00etara.
Zapatuetan,
10:00etatik 13:00etara.
**Sukalde eta horma-armairu italiarren azken belaunaldia**
- Diseinu italiarra zure esku
- Debagoieneko banatzaile ofiziala
- Bost urteko bermea
- Proiektu pertsonalizatuak
- Bi solairuko erakusketa
- Merkatuko prezio onenak
**ARMEKO**
**Sukalde italiarrak**
Kataide industrialdea 6. pabilioia • Tel.: 943 71 25 08 • ARRASATE



Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabiena auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19



AITOR URIZAR

**Urkuluko urtegia goraino beteta dagoela-eta, uhateak zabaldu behar izan dituzte oraingo astean.**

# Azken bi urteotako kota gorenetara heldu da Urkulu oraingo astean

*Orain dela bi urtetik ez zituzten uhateak zabaltzen urtegia husteko*

OXEL EROSTARBE

**Oraingo astean egindako euriteek arazo dezente eragin dituzte Debagoienean. Errekak gain egiteko zorian izan dira herri guztietan. Baita Urkuluko urtegia ere: ura kota gorenetara heldu aurretik, uhateak zabaldu zituzten eguaztenean.**

Debagoienean zenbaterainoko euria egin duen ikusteko, adibide adierazgarriena dugu Urkuluko urtegia. Bi urte dira Urkulun batutako ura kota gorenera, 333 kotara, heltzeko zorian ez zegoela. Eguaztenean, 332-50 kotara heldu zen urtegian batutako ura. Urkuluko arduradunek, urak gorago egin aurretik, uhateak zabaltzea erabaki zuten.

Urtegia egin zutenetik, sarritan izan da Urkuluko ur kopurua kota gorenera heltzekotan. Horren ondorioz, uhateak ere sarritan zabaldu dituzte. Orain dela bi urtetik hona, ordea, ez dute urtegia husteko uhaterik zabaldu.

**DEBAK BERGARAN EGIN ZUEN GAINEZKA**

Ibarrean behera egin ahala, handiagoa izan da Deba ibaiak gainezka egiteko arriskua. Ur-emaria nabarmen igo duen arren, Bergaran bakarrik egin du gainezka Debak. Abenduan egin zuen leku berean, Ibaiondo kaleko zubi azpiko igarobidean egin zuen gainezka. Martitzen goizean izan zen. Udaltzainek igarobidea itxi zuten goizean, eta arratsaldean, Deba bere bidera itzuli zenez, igarobidea zabaldu zuten berriro.

Gainerako herrietan ohi baino ur-emari handiagoa zeraman Deba ibaiak. Hala ere, puntu baten ere ez zuen gainezka egin. Errekastoek ere, ur-emari handia zeramaten arren, ez zuten gainezka egin.

**LUIZIAK IZAN DIRA HERRI GUZTIETAN**

Deba ibaiak eta errekastoek baherrean, luiziek eragin dute arazo handien: Bergarako saihesbide zaharrean luizia izan zen aurreko asteko leku berean; Eskoriatzan ere saihesbidean izan zen luizia; Aretxabaletan Apotza-Etxebarriko lautadan izandako luiziak pasealekua lokatzez bete zuen. Izurieta auzoan eta Ametsako baserri inguruetan ere izan ziren luiziak eta Arkarazoko auzoan bideak behera egin zuen. Baina arazo larriena Arrasaterako bidean zegoen bide-zulo batek eragin zuen. Bide bazterrean putzua egin zen eta gidari askok bide-zuloan sartu zituzten autoaren gurpilak; gurpil zulatze ugari izan ziren. Inguru hartan auto istripua izan zen eguaztenean. Bestalde, Aramaion berriro izan zen luizia Untzilla eta Zabola artean. Elgetan, azkenik, Karabieta gainean izan zen luizia.

Arrasateko Musakola auzoan haizearen eraginez okertua zegoen zuhaitz bat bota zuten.



**JOSE ANTONIO ROJO**
URKULUKO LANGILEA

*"Oraingo asteko kotak sarritan izan ditugu Urkulun"*

**Astean, Urkuluko uhateak zabaldu zenituzten. Zenbat urte dira zabaltzen ez zenituztela?**

Uhateak edozein unetan erabilgarri izateko, aldizkako mantentze lan gisa, hilero zabaltzen ditugu. Duela bi urtetik hona, ordea, ez dugu uhaterik zabaldu urtegia husteko beharragatik.

**Presak gainezka egin aurretik zabaldu zenituzten uhateak. Zenbat denbora izan zenituzten zabalik.**

Egindako euriteen ondorioz, betetze kotara iristear egon zen urtegia, hau da, 333 kotara iristear. Eguaztenean zabaldu genituen uhateak eta eguen goizeko zortziak arte izan genituen zabalik. Urtegia 332-50 kotan dago, eta ez bada beste eurite handirik gertatzen, ez dugu konportarik zabaltzea aurreikusten.

**Urkulun batutako ura sarritan heltzen da kota horietara?**

Urkulun sarritan heldu da ura betetze kotara. Azken bi urteotan kota horietara heldu ez garen arren, martitzenean eta eguaztenean izandako kotak sarritan izan ditugu Urkuluko urtegian.

## BAILARAN LABUR

### 'Gernikatik Euskal Herrira' bilgunea aurkeztuko dute Arrasaten eta Bergaran

Herriz herri aurkezten dabiltza *Gernikatik Euskal Herrira* bilgunea, eta oraingo asteburuan, Arrasaten eta Bergaran aurkeztuko dute. Zapatu eguerdian egingo dituzte aurkezpenok: 12:30ean, Arrasaten, Herriko Plazan; ordu erdi lehenago, Bergaran, Xabier Munibe plazan. Bergaran Maite Aristegik egingo du aurkezpena, eta bertsolariak, dantzariak eta zanpantzarrak izango dira. "Arloz arlo eta herriz herri, Euskal Herriaren ikuspegia biltzen duten dinamikak abiatu eta nazio eta giza eskubideen ukapen eta murrizketei aurre egiteko helburuarekin" sortu da herritarren plataforma hori. /E.A.

### Arizmendi Ikastolak Haur Hezkuntza egitasmoa aurkeztuko du bihar Arrasaten

Arizmendi Ikastolak orain dela urte batzuk hasitako bateratze prozesua apurka-apurka betetzen eta sendotzen ari da, eta bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian egingo duten haur egitasmoaren aurkezpena da horren erakusle. 11:30ean hasiko da ekitaldia; 12:00etan, Carles Perelladaren hitzaldia izango da, *Familia eta eskola: elkartuta ala banaturik?* gaiaren gainean. Amaieran, Oihulari Klown taldeak ikuskizuna egingo du. Bestalde, umeendako hainbat jarduera ere antolatuko dituzte. /E.A.

### Bergaratik Antzuolarako errepideak itxita jarraituko du datorren astera arte

Bergarako Urteaga kalea itxita dago ibilgailuendako joan den zapatua ezkero, Bonbulu okindegia zenaren fatxada zatia erori zenetik. Etxea errepidearen kontra dagoenez, Bergarako Udalak bidea ixtea erabaki du. Etxea datorren astean botako dute, seguruenik. Bestalde, Soraluzetik Maltzagara arteko bidea, beste behin, itxita egongo da egubakoitzean, gauez, eta domekan, egunez. /E.A.

### Sei debagoiendar daude eskaintza politiko berriaren bultzatzaileen artean

"Euskal Herriak autodeterminazioa behar du, dagoeneko abian dagoen Europako eraikuntzan ahotsa edukitzeko, eta, herri gisa, arlo guztietan bere garapenaren jabe izateko". Horrela hasten da joan den domekan aurkeztu zen eskaintza politiko berri baten aldeko manifestua. Hainbat arlotako Euskal Herri osoko 100 eragilek bultzatu gura dute eskaintza politiko berri hori, eta bultzatzaile horien artean sei debagoiendar daude: Jose Luis Elkoro, Maite Aristegi, Esteban Muruamendiaraz (Hiru), Mireia Unamuno Antzuolako alkatea, Evaristo eta Xanti Iparragirre errefuxiatu ohia. /E.A.




### Barandallaren egoera larria salatu dute

Bautista Barandalla preso nafarraren egoera salatzeko eta, gaixotasun larria duenez, aske laga dezaten eskatzeko, hainbat ekimen egin zituzten joan asteburuan ibarreko herri nagusietan. Arrasaten 40 bat lagunek barauldia egin zuten. Horrez gain, hainbat kale bilkura egin zituzten; baita hitzaldiak eta elkarretaratzeak ere. Eta domeka iluntzean, eskualdeko manifestazioa izan zen Arrasaten; mila bat lagunek hartu zuten parte . /E.A.

# Feritur ibarreko turismo feria ez da egingo aurten

*Halcon agentziak ez du Aretxabaletan egin gura*

E.A.

Debagoieneko turismo feria, Feritur, bertan behera gelditu da aurten. Maiatzean, hortaz, ez dute turismoari lotutako feriarik egingo. Aurreko hiru urteotan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin antolatu dute Feritur feria Mankomunitateak eta Halcon bidaia agentziak. Aurten, ordea, bi erakunde horiek ez dira ados jarri. Zergatik? Debagoieneko Mankomunitateak feria herriz herri antolatu nahi duelako eta, aurten, Aretxabaletan antolatu beharko litzatekeelako, baina Halcon bidaia agentziak ez duelako feria Aretxabaletan antolatu nahi. Mankomunitateak feria bere aldetik ezin dezakeenez antolatu, aurten, behintzat, ez dute egingo. Datorren urteari begira, gaia berriro aztertuko dute bi aldeek.

# Udalen elkarteak, 5,6 milioi euro ditu aurten

*Zati handiena Ingurumen Sailak erabiliko du*

E.A.

Debagoieneko Mankomunitateak aurtengo aurrekontua onartu du oraingo astean, aho batez. 5.600.000 eurokoa izango da aurrekontua, iazkoaren oso antzerakoa. Aurrekontuaren erdia baino gehiago (%53), ia 3 milioi euro guztira, Ingurumen Sailera bideratuko dute: zabor bilketara, Epeleko isurtegira, Akeiko erraustegira, garbiguneetara eta birziklatzeko materialak jasotzera.

Arlo horretan, ohiko paper, plastiko eta beiraz gain, beste material batzuk ere hasiko da jasotzen Mankomunitatea: sukaldeko olio erabilia eta arropak, hain justu ere. Aurtengo inbertsio handienak ere ingurumenean egingo ditu Mankomunitateak: denera inbertituko dituen 516.000 euroetatik, 274.000 euro.

# Hainbat ekimen bultzatu dituzte tortura salatzeko

*Datozen egunotan, manifestazioak egingo dituzte ibarrean*

NEREA ZUBIETE

**Torturaren Aurkako Eguna izango da datorren eguenean, hilaren 13an, Euskal Herrian. Eta, horri lotuta, Torturaren Aurkako Taldeko (TAT) kideek hainbat ekitaldi antolatuko dituzte geure ibarrean ere. Oraingo astean eman dute ekitaldi horien berri.**



AITOR URIARTE

Torturaren Aurkako Taldeak gaur egun torturatu egiten dela salatu du beste behin.

TATeko kideek astelehenean Arrasaten hedabideen aurrean egindako agerraldian garbi laga nahi izan zuten gaur egun, oraindik ere, "torturatu egiten dela" eta, desagertu beharrean, "areagotuz doala", besteak beste, "komunikabide batzuek eta politiko eta epaile batzuek ematen dioten babesagatik. Bestalde, TATekoek adierazi zutenez, "tortura psikologikoa eta fisikoa erabiltzen dute, eta horren froga garbiak dira Unai Romanoren argazkiak eta beste askoren testigantzak".

Egoera horrekin amaitzeko, hainbat proposamen egin ditu TATek, eta, horren harira, Torturaren Aurkako Eguna antolatu dute datorren eguenean Euskal Herri osoan. Horri lotuta, bihar, zapatua, manifestazioak egingo dituzte ibarreko herrietan, 19:00etan; Aretxabaletan, 20:00etan. Eta eguenean, hainbat ekimen egingo dituzte ikastetxeetan eta iluntzean, manifestazioak egingo dituzte herri guztietan. Azkenik, otsailaren 15ean, zapatuan, eskualdeko manifestazioa egingo dute Bergaran, 19:00etan.



# Zabalik



BEATRIZ ZABALONDO

## 'No pasar'

**Joan den asteburuan geuk ere gertutik ikusi nahi izan dugu kostaldera etorritako galipot dontsua.**

**Egunak dira malekoia itxita dagoela, baina esan didatenez, moilako pasealekuan ibiltzeko debekurik ez dago. Abiatu gara, bada, serio-serio, euripean, ingeniari lanetara: 'inspeziñua' pasatzera. Gaurko hizkeran esateko, "opiletan" zelan egiten den ikustera. Herritar asko topatu dugu, gu bezala, kaskorik gabe eta iritzirako pronto.**

**Malekoitik paseatzeko ohitura duten lagunak ere ikusi ditugu; gure antzean, goragoko kaletik zihoazen. "Ezin dela behera jaitsi, baina alde ederra dago olatu soinua edo auto hotsa entzun, ezta?", nik. Eta erantzuna: "Hala ere, jendea badabil. Bai, bada, malekoia zaindu beharrean, udaltzainak moilan dabiltza-eta…".**

**Txintxo-txintxoa dut lagun hori, eta harritu egin nau hori entzuteak. "Baina ez daude, bada, sarrera guztiak itxita zinta zuri-gorriarekin?" Eta hobeto geratu guran gehitu dut: "Tira, zinta batzuk haizeak apurtuta daude, baina denok dakigu irakurtzen, ezta?" Barretxoa ezpainetan alde egin du. Nik ere aurrera jarraitu dut; halako batean, Udaltzaingoak jarritako zinta egokitu zait pare-parean: *No pasar*.**

**Herri euskaldun peto-petoan. Denok entenditzeko moduan idatzita. Irakurtzen jakin ezta ere.**

**"Malekoiko eta hondartzako atzoko ibiltariak autistak izango ziren, beharbada", pentsatu nuen biharamunean. (¿!)**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Zinismo politikoa

Joan den urtarrilaren 30ean, Udaleko osoko bilkurak, besteak beste, mozio politiko batzuk onartu zituen. Horietako bat *Prestige*-ren hondamendiak Galizian eragindakoa gaitzesteko izan zen eta beste bat Iraken kontrako gerra gaitzesteko. Jakinekoa denez, PSE-EEk bi mozioei baietza eman zien.

Hemen nabarmendu behar dena da EBren eta gainerako talde politiko nazionalisten zinismoa, *Prestige*-ren hondamendiak Euskadin izango dituen ondorioen berri izateko PSE-EEk egindako proposamena baztertu zuten-eta. Proposamen horretan honakoa egin gura genuen: gure kostaldea garbitzea euskaldunoi zenbat kostatuko zaigun jakitea, boluntarioekiko babes plana abian ipin dezan eskatzea Eusko Jaurlaritzari; Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren bitartez hondamendiaren ondorioen berri eman dezan eskatzea; eta bi gobernuek erantzukizun politikoak zein ekonomikoak ebaluatzeko eta garbitzeko talde mistoa era dezaten eskatzea. Bitxikeria moduan, esan beharra dago Ezker Batuko zinegotziak (Ingurumen Saileko buruak) baztertu egin zuela ekimena, gainerako alderdi nazionalisten babesarekin.

Madrazo jaunaren lanpostutzarra babesteko izango ote?

Aipatutako hori larria izan arren, oraindik ere larriagoa izan zen Iraken gerraren kontrako mozioarekin gertatu zena. Mozioa Batasunaren elizmutilak aurkeztu zuen, EBko zinegotziak, zeinek Euskadin jasaten dugun indarkeria, hilketak eta estortsioa gaitzesten ez duen talde politikoa babesten duen; baina, era berean, kanpoko lurralde urrunetako (Irak) askatasunaren defentsaren paladina da. Eta, Arrasatek balio demokratikoen alde borrokan jarrai dezan proposatzeko zinismoa dauka, nahiz eta herri berean era guztietako indarkeria, mehatxu, estortsio eta, azken baten, garbiketa etnikoa jasaten duten pertsonak, erakundeak, saltokiak…egon.

Noiz ikusiko dugu etxean duguna?

FRANCISCO GARCÍA RAYA
(PSE-EE-KO BOZERAMAILEA
ARRASATEKO UDALEAN)
Arrasate

### Elurra zela-eta, arazoak GOIENKARIA banatzeko

Joan den barikuko elurteak geuri ere eragin zigun. Izan ere, GOIENKARIA, ohikoa den moduan egubakoitz arratsaldean banatu beharrean, zapatuan eta domekan banatu zuten ia herri guztietan. Antzuolan beranduago banatu zuten. Edozelan ere, berandu bada ere, banatu zuten etxez etxe joan den asteko GOIENKARIA. Hala, egubakoitzean GOIENKARIA jasotzeko zain egon zinetenoi, barkatu eragozpenak.

# Hemeroteka

## Elkarrizketa eta negoziazioa

Dorre bikien lurreratzea, Baliko atentatua, Dubrovka Antzokiko sarraskia, Txetxeniako atentatu beldurgarria, hanhemenka etengabeko ekintza armatuak burutzen ari diren unean, elkarrizketa bidetik abiatzea premiazkoa ez ezik ezinbestekoa da etorkizunari bakezko bideak irekitzeko. Urte berria dela-eta denen ahotan bakea hitza erabili da. Nork, ordea, ez du nahi bakerik? Nor dabil Irakeko petrolioaren atzetik eta gune estrategiko bihurtu nahirik? Arma nuklearrak aitzakiatzat hartuta, herria bere esanetara jartzeko suntsitu eta kiskali egingo du. Jakina, Bush eta bere gobernua da horretan ari den mandamasa, baina maila txikiagoan beste asko bide beretik dabiltza bakoitza bere herrialdean tokian tokiko arazoak larritzen. (...)

Bush, Aznar, Putin, Sharon modu horretan pentsatzen duten agintari handi, ertain eta txikiak, guztiak aipatzea luzeegia litzateke. Galdera da: noiz konbentzituko ote dira gatazkak, konfliktoak, bide horretatik, konpondu ordez, larriagotu besterik ez direla egingo? Amerikako Estatu Batuetako Gobernuak mundu osoa bere esanetara ipini nahi du, bere aginduetara makurrarazi, eta onartzen ez dutenei eraso diplomatikoa aurrena, ekonomikoa jarraian, blokeoak ondoren, eta guzti hori aski ez balitz, bonbak herria desegin arte. Mundu zabaleko akolitoek itsu itsuan bat egin dute berekin. (...)

Egoera hau ekiditeko Kultura Berriaz jantzi beharra dago: elkarrizketa eta negoziazioa. Danba eta danba kolpe latzak izango dira albiste. Eta, tamalez, gure galdera da, zenbat kolpe eman behar ote dira agintari boteretsu harroak horretaz jabetzeko? Hango eta hemengo agintarien bortizkeriazko oskola leherrarazi eta mahai inguruan jazarrarazteko, zenbat ekintza armatu burutu behar ote dira? Aipatu Kultura Berria lantzea ezinbestekoa da denontzat. (...)

ANDRES OSA "SAKONA"
'Gara'. 2003-02-06

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

BERGARA

## Bertako espezieak bultzatzeko Zuhaitz Eguna antolatu du Udalak bihar

Espezie autoktonoak sustatzeko politikaren barruan antolatu du Udalak Zuhaitz Eguna. Bihar, zapatua, izango da, eta bi ekitaldi nagusi antolatu dituzte: batetik, zuhaitzen ezaugarrien gaineko erakusketa egongo da, 09:30etik eguerdira bitartean, San Martin plazan. Horrekin batera, basolanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta ere egongo da.

Bestetik, zuhaitz landatze sinbolikoa egingo dute Pol-Pol mendi inguruan. Animatzen direnendako autobusa egongo da, 10:30ean, Ibargarain. /M.B.

OÑATI

## Herri antzerkia izango dugu Makalenaren eskutik

Makalena kultura elkarteak antzezlana eskainiko du Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Hala, herriko jaietan estreinatu zuten *Aneziñua oñatiarrez* izeneko antzezlana berriro ikusteko aukera emango digute, martxoaren 1ean, hain zuzen ere.

Antzezlan horretan, konderri izatetik Gipuzkoan sartzeko egin zen batzar famatua ekarriko digute gogora.

Antzezlana, gainera, Oñatiko euskaran egingo dute, kaletar, baserritar, araoztar eta zinegotzien hizkerak bereiztuta. /A.I.

ANTZUOLA

## Iraken gaineko hitzaldia egingo dute datorren eguaztenean

Iraken aurkako gerraren hotsak gero eta ozenagoak diren honetan, horren guztiaren gaineko hitzaldia izango dugu datorren eguaztenean, hilaren 12an, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, arratsaldeko zazpietan. ZUTIKek antolatu du, eta Gerrarik Ez taldeko kide Jon Arregik egingo du hitzaldia, *Estatu Batuek zergatik inbaditu nahi dute Irak?* izenburupean. Horrela, komunikabideetan horrenbeste entzuten gabiltzan albisteak hobeto ulertzeko balio izango digu. /A.I.



MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA

## Atzo, eguena, inauguratu zuten ATZEGIk urria ezkero Aretxabaletako Durana kalean zabalik duen adimen urriko pertsonendako etxebizitza

Atzo, eguena, inauguratu zuten Gipuzkoako adimen urriko pertsonen aldeko elkarteak (ATZEGI) orain dela hiru hilabete Aretxabaletan zabaldu zuen etxebizitza. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Anjel Bergaretxe alkatea, Maximo Goikoetxea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako diputatua, Jose Luis Zaldua ATZEGIko presidentea eta diruz lagundu duten beste hainbat elkarte eta kutxatako ordezkariak izan ziren.

Durana kaleko 13. zenbakian dagoen etxea hiru modulutan dago banatuta, eta 12 lagunendako lekua dauka. Oraingoz, sei lagun bizi dira, eta guztiak joaten dira GUREAKek Bergaran duen lantegira lanera. Etxebizitza hori, adimen urrikoak bizi diren Debagoieneko lehenengoa da, eta Gipuzkoako hamabigarrena. /MIRARI ALTUBE

ELGETA

# Lapurrak sartu dira gaztetxean eta musika aparatua eraman dute

Eguazten goizaldean, lapurrak sartu ziren gaztetxean, atzeko aldean dauden leihoetako bateko kristala apurtuta . Kontzertuak egiteko gela eta taberna banatzen dituen atea zabaldu ostean, bulegora sartzen ahalegindu ziren. Ez zuten lortu, eta taberna dagoen gelarako bidea hartu zuten. Gela hori guztiz nahasita aurkitu zuten gaztetxeko kideek hurrengo egunean: CDak lurrean, futbolina buelta emanda, izozkailuak zabalik eta, garrantzitsuena, musika aparatua zegoen txokoa, hutsik.

Elgetako gaztetxeko kideek salatu egin dute gertatutakoa, eta Ertzaintzak ikerketa zabaldu du. Eguazten arratsaldean izan ziren gaztetxean ertzainak. Hauek GOIENKARIAri esan diote, ez dutela hatz aztarnarik topatu, baina lapurreta egiteko modua nahiko baldarra izan dela. /O.E.



O.E.

**Atzekaldeko leihoa apurtuta sartu ziren lapurrak gaztetxera.**

ARAMAIO

# Aho batez onartu du udalbatzarrak 2003ko udal aurrekontua

Aho batez onartu zuen udalbatzarrak aurtengo aurrekontua. Hain zuzen ere, 1.740.609,83 euroko aurrekontua onartu zuten zinegotziek joan den asteko osoko bilkuran. Iazkoa baino %24 txikiagoa izango da, eta 156.695,22 euroko mailegua eskatu beharko du, gastu guztiei aurre egiteko.

Iñaki Nafarrate alkateak esan zuenez, azken zortzi urteotan, gastu ugari izan ditu Udalak, batez ere, auzoetako lanak egiteko (saneamendua, gasifikazioa...); baita kultura etxe berria egiteko ere. Eta horri guztiorri aurre egiteko, mailegua eskatu behar izan zuen Udalak. Oraindik ere mailegu hori ordaintzen dabil Udala; hortaz, diru gutxiago dute aurtengo beharrei aurre egiteko.

Horrez gain, alkateak oposizioari eskertu egin zion aurrekontuak aho batez onartu izana. /U.M.

**UDAL AURREKONTU OSOA 1.740.609,83 €**

**INBERTSIO AIPAGARRIENAK**

| | |
|---|---|
| Udaletxeko proiektua | 266.584 € |
| Obra hidrografikoak Ibarran | 164.284 € |
| Arexolako azpiegiturak | 155.473 € |
| Matxain kalea zabaltzea | 48.000 € |
| Lorategiak zaintzea | 37.600,89 € |
| Kultura etxeko gestioa | 30.000 € |
| Arangio garbitzea | 18.643,40 € |
| Euskara zerbitzua eratzea | 15.100 € |
| Liburutegiak informatizatzea | 15.000 € |

ARRASATE

## Cerrajerako babes ofizialeko etxebizitzekin lotutako lanak

Babes ofizialeko etxebizitzen urbanizazioaren aurreneko zatia egiten hasi dira. Hain zuzen, etxebizitzetarako azpiegiturak desbideratuko dituzte orain; horrela, gero, etxeak egiten hasten direnean, hori guztiori eginda izango da.

Lanon ondorioz, eremu hartan (eskualdeko ospitale inguruan) zegoen aparkalekua kendu egin dute; eta haren ordez, Udalak beste leku bat egokitu du errepidearen beste aldean.

Etxebizitzen gain, berriz, jakinarazi digute Jaurlaritzan proiektu hori idazten dabiltzala . /U.M.

ESKORIATZA

## 'Drogak: gizarte gaia' erakusketa jarriko dute ikusgai astelehenean

Debagoieneko beste zenbait herritan egon ostean, datorren hilaren 16ra arte, *Drogak: gizarte gaia* erakusketa Eskoriatzako kultura etxean egongo da ikusgai. Drogek gizartean duten presentzia aditzera ematea du helburu erakusketak. Hainbat irudi eta erretraturen bitartez, drogak eurak aztertu beharrean, drogen errealitatea gizarte errealitateari lotuta lantzen ditu erakusketak. Zabalik egongo da astelehenetik zapatura (18:00etatik 20:00etara) eta domekan (13:00etatik 14.00etara eta 18:00etatik 20:00etara). /A.G

LEINTZ GATZAGA

## Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta denda kudeatzeko deia

Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta oinarrizko produktuen denda kudeatzeko deialdia egin du Leintz Gatzagako Udalak. Interesa duenak, otsailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko du proiektua, Leintz Gatzagako udaletxean. Informazio zabalagoa, udaletxean bertan.

Leintz Gatzagako alkate Joxerra Agirreurretak esan digu, otsailean izango den osoko bilkuran erabakia hartzeko moduan izango direla, eta lehenbailehen gura duela Udalak proiektua abiaraztea. /A.G.

# *Larraitz Ugarte*

ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, KRIMINOLOGOA ETA LEGEAREN SOZIOLOGOA

# "Herritar gehienek uste dute espetxeak ez duela ezertarako balio: ez herritarren segurtasuna bermatzeko, ezta delitugileak birgizarteratzeko ere"

Larraitz Ugarte (Oñati, 26 urte) Zuzenbidean lizentziaduna, kriminologoa eta legearen soziologoa da. Une honetan, Europa mailako ikerketa egiten dihardu, emakumearen eta espetxearen gainean. Egunotan, baina, albiste izan da kartzelaren, zigorraren eta delituaren gainean EHUk egin duen ikerketa bat. Larraitz Ugarte bera ibili da ikerketa hori egiten, beste lankide batzuekin batera.

ENEKO AZKARATE

**Zuzenbidean lizentziaduna zara, baita kriminologoa eta legearen soziologoa ere. Hitz potolo samarrak dira horiek. Azalduko diguzu zer den kriminologo izatea?**

Delinkuentziaren eta delituaren gaineko teoriak lantzea, bai delitu egitearen gainean baita delituak jasotzen dituen emaitza juridikoaren gainean ere: delituaren kausak; hedabideek, estatuek, sistemak… delituari ematen dioten tratamendua…; horren guztiaren gainean teorizatzea eta ikerketa egitea izango litzateke kontua.

**Eta legearen soziologia zer da?**

Legearen eraginpean dauden gizarte kolektibo guztien inguruko hausnarketa teorikoak egitea izango litzateke.

**Kartzelaren, zigorraren eta delituaren gainean herritarrek duten iritzia aztertu duzue. Zein izan da ikerketa horren helburua?**

Delinkuentziaren eta neurri penalen gainean Autonomia Erkidegoko herritarrek duten iritzia jakin gura izan dugu. 1.150 inkesta egin ditugu hiru herrialdeetan. Kontua da hedabideetan, gehienetan, delinkuentziaren gaineko modu bateko iritziak zabaltzen dituztela. Horren aurrean, guk hipotesi batzuk planteatu genituen, uste genuelako delinkuentzia kasu errealak eta hedabideetan edo estatistiketan ateratzen direnak ez direla berdinak. Bestalde, ikusita estatuen aldetik neurri penalak gogortzeko joera dagoela, jakin gura genuen ea herritarrak neurri horiekin bat datozen edo ez. Ikerketa iaz egin genuen, azaroan.

**Gaurkotasun handiko gaia da, batez ere, PPko gobernuak ezarri nahi dituen neurri penal berrien harira.**

Bai, horrela da. Guk erakutsi nahi izan dugu delinkuentziaren gainean badagoela manipulazio bat, hiru motatako helburuak dituena: batetik, helburu ekonomikoak, segurtasun polizialaren eta militarraren izenean izugarrizko merkatua dagoelako; bestetik, helburu politikoak, gobernuen egitasmoak berresteko, sarritan, delinkuentziaren eta segurtasunik ezaren gaia erabiltzen delako; eta, azkenik, helburu ideologikoak. Hau da, herritarren gehiengoa sistemaren barruan kohesionatuta sentiarazten delako eta, horretarako, gutxiengo bat gizartetik edo sistematik kanpo edukitzea beharrezkoa delako.

**Zein izan da ondorio nagusia?**

Herritarrak, jeneralean, ez direla babestuta sentitzen; hau da, jendea ez dagoela pozik segurtasun polizial eta militarrak eskaintzen dion babesarekin. Batez ere, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, uste dutelako delitu larrienak ez direla zigortzen edo jarraitzen; eta, bestetik, zigorren desegokitasunagatik. Jendeak ez du eskatzen neurri penal zorrotzagoak edo kartzela zigor handiagoak –zigorrak oso osorik betetzea %16k bakarrik eskatzen dute–, baizik eta delitua murrizteko eta herritarren segurtasuna bermatzeko beste neurri batzuk.

**Horren haritik, azterketatik atera duzuen ondorio nagusietakoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren %61ek beste aukera batzuk nahi dituztela kartzela sistemaren ordez.**

Bai; gehiengoak uste du, oro har, espetxeak ez duela ezertarako balio. Ez herritarren segurtasuna bermatzeko, ez delitugileak birgizarteratzeko, ezta eskarmentatzeko ere, eta biktimaren konpentsaziorik ere ez dela lortzen. Hortaz, hiru arrazoi horiengatik, kartzela zigorrak ez duela ezertarako balio uste du gehiengoak. Espetxearen gainean aldeko iritzia dutenek diote gizartea beldurtzeko edo neurri prebentibo moduan ona izan daitekeela, baina gehienek uste dute ez duela ezertarako balio.

**Zergatik da hori?**

Jendearendako nabarmena delako delitu larrienak, hau da, hilketak, sexu-abusuak eta medikamentu eta elikagaien manipulazioa, ez direla jarraitzen edo behar den moduan zigortzen. Batez ere, txiroen kolektiboak edo aurretik kriminalizatuta dauden kolektiboak zigortu edo jazartzen direla uste du jendeak: ijitoak, inmigranteak, gazteak, pobrezian bizi direnak… Eta, berriz, Mario Conde bati, esate baterako, tratu hobea ematen zaiola.

**Hortaz, kartzela zigorraren ordez, beste neurri batzuk dituzte nahiago?**

1995eko kode penalean jasotako neurriak planteatu zitzaien inkestatutako herritarrei: etxe barruko arrastatzeak, isunak, komunitatearen aldeko lanak… Jendea ados zegoen horrelako neurri penalak erabiltzearekin. Baina kontua da 1995eko kode penala, teorian aurrerakoiagoa izan arren eta kartzela zigorraren ordez beste alternatiba batzuk planteatzen zituen arren, azkenean, neurri horiek indarrean jartzeko bitarteko nahi-



DELITUEN JAZARPENA

**"Jendearendako nabarmena da delitu larrienak, hau da, hilketak, sexu-abusuak eta medikamentu eta elikagaien manipulazioa, ez direla behar den moduan zigortzen"**

DELINKUENTZIA KASUAK, GORA

**"PP gobernuan dagoenetik, delinkuentziak %9 egin du gora, eta Europan jaitsi egin da. Hortaz, zigorrak gogortzeak ez ditu delinkuentzia kasuak gutxitzen"**

LEGEA, DENONDAKO BERA?

**"Herritarren %66k uste dute legea ez dela denondako bera: delituak era guztietako pertsonek egiten dituztela, baina txiroei eta marjinatuei bakarrik jazartzen zaiela"**

SEGURTASUNIK EZA

**"Sistemak jendearen segurtasunik eza nabarmendu nahi du, batez ere, 2001eko irailaren 11ko gertaeren ondoren. Helburu baten izenean, kontzientzia sozialarekin jolasten du sistemak"**



IÑAKI SOTO

koa ez dela ipini. Neurri prebentibo moduan ere, azkenean, gehien ezartzen den zigorra espetxea da.

**Ikerketaren beste ondorioetako bat da delituei aurre egiteko poliziaren efikazia zalantzan jartzen dutela herritarrek.**

Bai. Ondorio interesgarrienetarikoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren ia %50 delituren baten biktima izan direla; hau da, zuzenean norberaren segurtasunaren, jabetzaren edo bizitzaren aurka atentatu dutela inoiz. Bestalde, biktima izan dira gizarteko sektore guztietakoak. Baina, salaketari dagokionez, delituren bat jasan dutenen erdiak ez du salaketarik ipini. Horrek erakusten digu delitu piloa ez direla segitzen, ez direlako salatu. Eta, bestalde, salaketarik ez egiteko arrazoi nagusia da eraginkortasunik eza edo utzikeria.

**Horrek esan nahi du jendeak uste duela ez polizia eta ezta justizia ere ez direla eraginkorrak?**

Bai. Batetik, eraginkortasunik eza, eta, bestetik, konfiantzarik eza ere sumatzen da herritarren artean; salaketa egiterakoan, batez ere. Horrek erakusten digu sistema penalak ez duela bilatzen ez delitugileen birgizarteratzerik ezta biktimaren konpentsaziorik ere. Hamar delitutatik, hiruk egiten dute aurrera eta bik bakarrik jasotzen dute benetako kondena. Ikusten da, hortaz, jendearen ustea eta benetako datuak bat datozela.

**Horrek guztiak ez du zalantzan jartzen sistema osoa?**

Bai, argi eta garbi, horrela da.

**Azterketan esaten duzue herritarrek uste dutela txiroenei, marjinatuei edo gutxiengoei ezartzen zaizkiela, batik bat, zigorrak.**

Herritarren %66k uste dute delituak era guztietako pertsonek egiten dituztela, baina txiroei eta marjinatuei bakarrik jazartzen zaiela. Gehienek uste dute legea ez dela denondako bera. Pobreziaren kriminalizazio fenomenoa gertatzen da; hau da, estereotipatu egiten da delitugileak zeintzuk diren, ze estetika duten, ze diru iturri, ze arrazatakoak diren… Jaso ditugun erantzunetatik atera daitekeen beste ondorio bat da herritarren %15ek bakarrik uste dutela indarkeriarako tendentziak dituztenek bakarrik egiten dituztela delituak. Horrek esan nahi du sistemak, gobernuak, hedabideek… %15 horiendako bakarrik dabiltzala diskurtsoa egiten.

**Eta zer saldu nahi digu sistemak diskurtso horrekin?**

Hasteko, esan behar da delinkuentziak gora edo behera egin duen jakiteko iturri polizialak erabiltzen direla. Eta, argi geratu da, ikusi dugunaren arabera, poliziaren estatistikak ez digula errealitatea islatzen, besteak beste, delituen erdiak ez direlako salatzen. Bestalde, ikusten dugu sistemak jendearen segurtasunik eza nabarmendu nahi duela, batez ere, 2001eko irailaren 11ko gertaeren ondoren. Ikusten dugu gero eta seguritate enpresa pribatu eta polizia gehiago dagoela, jendeari berdin zaiola norberaren askatasunari edo intimitate eskubideari uko egitea segurtasuna bermatzearen alde… Helburu baten izenean, kontzientzia sozialarekin jolasten du sistemak.

**Emakumearen, espetxearen eta integrazioaren gaineko ikerketa egiten zabiltzate une honetan Europa mailan. Zertan da ikerketa hori?**

Alemanian, Erresuma Batuan, Italian, Frantzian, Hungarian eta Espainian egiten gabiltza ikerketa. Europako Batasunak bultzatu du. Helburua da ikertzea ze neurri erabiliz birgizartera daitezkeen emakume delitugileak. Espetxeak baztertuta dauden emakumeak gehiago baztertzeko bakarrik balio duela demostratu gura dugu. Hortaz, kartzela sistemak ez duela balio inor birgizarteratzeko. Hori da gure azterketaren ildoa. Gainera, kontuan izan behar da espetxean dauden emakumeen egoera gizonezkoena baino gogorragoa dela.



AINTZANE IRIZAR

## "Legea eskuetan, mendekua hartzeko zigorra da kartzela"

**Esan duzu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren gehiengoak beste aukera batzuk hobesten dituela kartzela sistemaren ordez. PPri, baina, leporatzen zaio boto gehiago lortze aldera gogortu nahi dituela zigorrak. Argi dago, hortaz, Espainia aldean herritarrek beste iritzi bat dutela.**

Bai. PPk kode penala gogortzea erabakitzen badu, boto gehiago emango dizkiola badakielako da. Aznarren politika horrek jarraitzaile asko ditu Espainian. Hortaz, bai, argi dago Euskal Autonomia Erkidegoan beste iritzi bat dutela herritar gehienek. Hala ere, esan behar da PP gobernuan dagoenetik, delinkuentziak %9 egin duela gora, Europan –Alemanian, esate baterako– jaitsi egin den neurrian. Hortaz, zigorrak gogortzeak ez ditu delinkuentzia kasuak gutxitzen.

**Zuen azterketaren arabera, birgizarteratzeko baino gehiago, delitugileak sortzeko balio dute espetxeek. Horixe da ikerketa horretan argi geratu dena?**

Bai, legea eskuetan, sistemak mendekua hartzeko erabiltzen duen zigorra da espetxea. Gaizkileak gordetzeko, entzerratuta edukitzeko dira kartzelak. Hori horrela da.

*Podiuma*

# Eric García | UDAKO JOKALARIA |

**UDAk azken postuetatik ihes egin du azken jardunaldietan. Urtarrilean, Eric García aramaioarrak sartutako golek eragina izan dute horretan. Hala, Goienak urtarrileko jokalari onenari emandako saria irabazi du Eric Garcíak.**




O.E.
Eric Garcíak bederatzi urte daramatza UDAko talde nagusian.

**Goiena saria irabazi duzu. Azken jardunaldietan golak egin dituzu. Pozik egongo zara.**

Sariak irabaztea beti da pozgarria. Taldeak ere hobera egin du azken asteotan, eta horren ondorioz irabaziko nuen saria. Ea hurrengo jardunaldietan ere bide honetatik jarraitzen dugun.

**UDAko beteranoetako bat izanda, inork baino hobeto ezagutuko duzu taldea. Denboraldia nahiko gorabeheratsua izaten ari da.**

Hasiera kaskarra izan genuen, eta kostatu egin zaigu lasaitasuna hartzea. Izan ere, golik ezin sartzea eta zenbait partidutan beherakada izatea batu zitzaizkigun. UDAk beti izaten du beherakadaren bat, eta aurtengoa pasatu dela dirudi. Azken urteotan jende gaztea sartzen joan da taldera, eta horrek ere eragina izan duela uste dut. Horiek denbora behar dute mailari egokitzeko, eta, denboraldia aurrera doan neurrian, euren maila erakusten ari dira. Azken partiduetan hobeto gabiltza, emaitzak lagun. Taldea hobera doa. Erdialdeko postuetan finkatzea lortu behar dugu.

> **“Hasiera kaskarra izan genuen, eta kostatu egin zaigu lasaitasuna hartzea. Azkenaldian, hobeto gabiltza; emaitzak lagun ditugu”**

> **“Aloñaren aurka jokatzeko gogoa daukagu, aurkari zuzena da-eta. Azken partiduetan moduan jokatuz gero, irabazi egingo dugu”**

**Denboraldi amaieran UDA non egongo den hurrengo jardunaldietako emaitzek baldintzatuko dute. Aurkari zuzenen aurka irabazi egin behar.**

Aste bukaeran, Hondarribiaren aurka jokatuko dugu, eta gero, Aloña hartuko dugu Ibarran. Hurrengo bi edo hiru partiduetan emaitza onak lortzea oso garrantzitsua da guretako. Derbia jokatzeko gogoa daukagu, aurkari zuzena da-eta. Azken partiduetan moduan jokatuz gero, ziur nago irabaziko dugula.

**Zein talde ikusten duzu ligako aurreneko postuetan amaitzeko indartsuen?**

Azken denboraldietan, ez dago argi zein igoko den. Preferenteko taldeen maila nahiko parekoa da eta aurreko aldean daudenek partiduak galtzea arrunta da. Aurten, Pasajes oso ondo dabil. Eta Pasajes taldearekin batera, urtero aurrenekoen artean ibiltzen direnak aipatu behar: Tolosa, Elgoibar eta Berio aurreko aldean ibiliko dira amaierara arte.

**Bederatzi urte daramatzazu UDAko talde nagusian. Aramaioarra izan arren, etxean moduan egongo zara.**

Urte asko daramatzat UDAn, eta gustura nabil. Ibarra da preferente mailan zale gehien batzen den futbol zelaia, eta hori eskertzekoa da.

**Beteranoetakoa izanda, erretiroan pentsatzen hasi zara?**

Urteak eman ditut futbolean. Seguruenik, denboraldi hau eta hurrengoa izango dira azkenak.

OXEL EROSTARBE

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Bergara-Trintxerpe (atz.) / Touring-Aloña Mendi: 2-2 / Aretxabaleta-Gure Txokoa: 7-1 / Mondra-Pedrusko: 0-1

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 3 puntu |
| 2. | Andoni Azpiazu | (Mondra) | 2 puntu |
| 3. | Joseba Albizu | (Aloña) | 1 puntu |


1
**Alberto Matalobos**
Aretxabaleta


2
**Andoni Azpiazu**
Mondra


3
**Joseba Albizu**
Aloña

**Alberto Matalobos**
Albertok, gol bat eta joko paregabea.

**Andoni Azpiazu**
Andoni, betiko moduan, ikaragarri defentsan.

**Joseba Albizu**
Aurrelariak bi gol, eta Aloñak puntua etxera.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| 2. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| 3. | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 6 puntu |
| 4. | Eric García | (Aretxabaleta) | 6 puntu |
| 5. | Jon Altzola | (Bergara) | 6 puntu |


1
**Gorka San Vicente**
Bergara


2
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


3
**Alberto Matalobos**
Aretxabaleta


4
**Eric García**
Aretxabaleta


5
**Jon Altzola**
Bergara

**Goienkaria**

---

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Juan Luis Arregi
## Futbola



**Durangoko taldean jokatzen zueneko argazkia.**

**17 urterekin Eibarrek fitxatu zuen.**

**Hirugarren mailan jokatu zuen Bergararekin.**

**Entrenatzaile ere izan zen zenbait taldetan.**

Futbolari eta entrenatzaile moduan da ezaguna Juan Luis Arregi. Futbolari moduan, jaioterrian, Elgoibarren ekin zion. Gero, Eibarrek deitu, eta hara joan zen 17 urterekin: “Urkon urtebete egin ondoren, gorengo taldera igo ninduten. Taldea hirugarren mailan zegoen eta Paco Arberas zen entrenatzailea. Urte hartan, zorte txarra izan nuen: abduktoreetan lesioa izan nuen eta ia denboraldi osoan ez nuen jokatu. Era berean, Alaves desagertu egin zen urte hartan, eta Eibarrera etorri ziren han ziharduten zenbait jokalari. Gazteondako zaila zen jokatzea, eta beste talde batzuetara joan ginen, utzita”. Juan Luisek Durangorako bidea hartu zuen: “Durangon urtebete egin ondoren, soldadutzara joan beharra etorri zen. Soldadutzan nengoela, Ondarroako Aurrerak eta Urolak deitu zidaten. Urolak soldadutza guardia barik egiteko eta arratsaldeetan libratzeko aukera eskaintzen zidan. Preferente mailan egon arren, hara joan nintzen. Orduan, Juanjo Arrieta zen hango entrenatzailea. Urolan hiru urte egin nituen, eta gero, Bergarara etorri nintzen”. Bergara preferente mailan zegoen orduan, eta hirugarren mailara igo ziren: “Futbolean bizi izan nuen unerik gogoangarrienetakoa izan zen hura. Guretako oso garrantzitsua izan zen, urte asko ziren-eta taldea hirugarren mailan ez zegoela. Hirugarren mailan bi urte jokatu eta gero, futbola utzi nuen, 27 urterekin”.

Futbola utzi, eta entrenatzaile titulua atera zuen: Elgoibarko, Bergarako eta Aretxabaletako entrenatzailea izan zen. Lanak, ordea, futbolean urte gehiago segitzea eragotzi zion. / O.E.

> ***“Futbolean bizi nuen unerik gogoangarriena Bergararekin hirugarren mailara igo ginenekoa izan zen”***



Juan Luis Arregi • Elgoibar • 1954

# Pilotarekiko zaletasuna bultzatzen

## Debagoieneko 500 neska-mutikok hartu dute parte Ikaspilota topaketetan

**Debagoieneko pilotalekuak DBHko bosgarren mailan dihardutén neska-mutikoz bete dira astean. Denera, Debagoieneko 500 neska-mutikok hartu dute parte Ikaspilota topaketetan. Topaketen helburuetako bat bete dute: ume guztiek pilotarekin harreman zuzena izatea, hain zuzen ere.**



O.E.

DBHko bosgarren mailan dihardutén ikasleek Debagoieneko pilotalekuak bete dituzte Ikaspilota Topaketetan.

Debagoieneko ikastetxeetan DBHko bosgarren mailan dihardutén ikasleek pilota gertutik ezagutzeko aukera izan dute astean. Izan ere, Ikaspilota topaketak izan dira Debagoieneko hainbat herritan. Hala, martitzenean, Arrasateko Uarkape, Musakola eta Iturripe pilotalekuetan izan ziren topaketak; eguaztenean, Bergarako eta Antzuolako pilotalekuetan; atzo, eguena, Oñatiko pilotalekuan; eta gaur, egubakoitza, Aretxabaletakoan. Denera, Debagoieneko ikastetxeetako 500 neska-mutikok baino gehiagok hartu dute parte topaketetan.

Pilota topaketak aste barruan izan diren arren, ikastetxeak urtarrilean hasi ziren pilotaren gaineko gaiak aztertzen. Izan ere, topaketen helburu nagusia da gaztetxoengan pilotarekiko zaletasuna piztea. Horretarako, txapelketak barik, parte-hartzea bultzatu dute topaketek. Ikasleek pilotalekuetan egindako saioetan, pilotan jokatzeko hainbat era daudela ikasi dute. Hortaz, ikasitakoak lantzea izango da hurrengo helburua.

### IKASPILOTAREN HELBURUAK

San Viatorko heziketa fisikoko irakasle Jose Mari Bastarrikak esan zigun zeintzuk diren Ikaspilotaren helburu nagusiak: "Orain dela urte batzuk, gure herrietako mutil ugari ibiltzen zen pilotan jokoan. Gaur egun, ordea, oso gazte gutxi ibiltzen dira. Eta, hain justu ere, Ikaspilota horretara dator, gaztetxotatik lantzera. Ikaspilotak neskak ere hurreratzen ditu pilotalekuetara, eta ez ikustera, jokatzera baizik. Gainerako kiroletan moduan, neskek ere pilotalekuetan euren lekua izatea da gure nahia".

Esan bezala, Debagoieneko pilotalekuak neska-mutikoz beteta ikusi ditugu aste barruan. Ikasle guztiek egin dute ahalegina.

OXEL EROSTARBE

## *Kirolabur*

### PILOTA/TXAPELKETA

Binakako Txapelketan ziharduten bi pilotari debagoiendarrak ez dira finalaurrekoetako ligaxkan izango. Joxe Mari Zezeagak eta Aitor Elkorok uste baino maila baxuagoa eman dute txapelketan. Biek ere arazoak izan dituzte eskuetan. Uberarrak eta Titin III.ak osatutako bikoteak partidu bakarra irabazi du eta Elkorok eta Goñi II,ak, berriz, garaipenik lortzeke esan diote agur txapelketari.

### ATLETISMOA/ARRASATE

Pista estaliko Euskadiko Txapelketa jokatu zen zapatuan Anoetan. Altuera-jauziko proban, kadete mailan, urrezko domina eskuratu zuen Lander Errasti arrasatearrak. Landerrek 2,80 metroko jauziarekin irabazi zuen txapelketa. 14 urteko arrasatearrak etorkizun handiko atleta dela erakutsi zuen Anoetan.

### TENISA/BERGARA

Otsailaren 19ra arteko epea dago Bergarako Tenis Txapelketan izena emateko. Parte hartzeko asmoa dutenek Bergarako Kirol Zerbitzuetara jo behar dute horretarako. Tenis Txapelketa otsailaren 22an hasi eta apirilaren 27an bukatuko da. Partiduak Labegaraietako kiroldegian jokatuko dituzte.

Txapelketako lehenengo fasea ligaxka eran jokatuko dute, eta, parte-hartzaile kopuruaren arabera, hainbat talde osatuko dituzte. Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria da txapelketa.

# Debagoieneko kirol txapelketen egutegia

## Aste bukaeran hasiko dira pala, tenis, esku pilota, squash eta frontenis txapelketak

Debagoieneko Kirol zerbitzuetatik antolatzen ditugun txapelketak oraingo aste bukaeran hasiko dira. Behean ikusten duzuen taulan zehaztu dizuegu hiruhilabete bakoitzean txapelketa zein herritan jokatuko den. Pala, tenis, esku pilota, squash eta frontenisko txapelketak izan dira Debagoieneko Kirol zerbitzuetatik urte honetarako antolatutako txapelketak. Lerro hauetatik, zorionak eman nahi dizkiegu iaz kirol zerbitzuek antolatutako txapelketetan garaipena lortu zuten lagunei. Eta aurtengo txapelketetan parte hartuko duzuen guztioi, zorterik onena opa dizuegu.

| | urtarrila | otsaila | martxoa | apirila | maiatza | ekaina | uztaila | abuztua | iraila | urria | azaroa | abendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aretxab. | | PALA | | | SQUASHA | | | | ESKU PILOTA | | | Frontenisa |
| Arrasate | | | | | ESKU PILOTA | | | | SQUASHA / FRONTENISA | | | Squasha |
| Bergara | | TENISA | | | FRONTENISA | | | | PALA | | | Tenisa |
| Elgeta | | ESKU PILOTA | | | PALA | | | | | | | Pala |
| Oñati | | SQUASHA / FRONTENISA | | | TENISA | | | | TENISA | | | Pilota |

## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
2003an, e-debagoiena
zabalduz, bultzatuz...
zure haritik
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Euskaltel
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko otsailaren 7a

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 7tik 14ra




## MAITASUNA, LERRO ARTEAN

LEHENENGO SARIA

**IÑAKI SERRANO**

29 urte / Eibar

Joanna maitetsua,

Hainbat urthez herriko errotora nintzela eta aspaldian parabisurako bidean pentsatzen nengoela, oren gaixtoan heldu zintzaizkidan ene zerbitzari izateko eta ia ia zurekin ifernuratzeko.

Nahi du Iankoak, haren etxeko zerbitzari aphez ordenatuak izan ditzan bi bertute: bakea eta garbitasuna. Hala bada, bizitza osoan egin nuen kastitatearen begiratzea eta emaztetik eskapatzea. Baiña, zure begitarteari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egoiteak sua piztu zidan eta arrobatu zenidan bihotza. Hara non etorri zen Luzifer berbera zugan gorpuzturik haragiaren bekhatuan tentatzera, zeren handiak dira haragiaren amorio desordenatuak egiten dituen kalteak, eta kalte printzipalena da adimenduaren goibeltzea, ilhuntzea eta itsutzea, eta horrek egin ninduen goizetik gauera zure azpiko eta esklabu.

Gaiñera eritasun hunez kutsatua gerthatzen den Eliza gizona are da gaizkiago eta galduago. Neure kasuan, emazte batekin bekhatutan egoteak ekarriko zizkidan desohorea, ienden erraitea, fama gaixtoan iartea eta exenplo okerra munduko. Hunela, itsutua eta beretakotua ninduen emaztearen apartatzeko, peril handi hartarik libratzea deliberatu nuen, hainbat erremedio erabillita.

Lehenbizi, egin nuen entsegu orazinoan, zeren ezaguturik nire etsaia etzela indarrez berdin, haragiaren kontra biktoria erdiesteko, egin nion othoitz Iankoari: erortzetik begira nintzala, eta garaipenarekin gelditzeko indar eta antze eman ziezadala. Iankoari hel nintzaion eta Ama Birjina kastitatearen patroin bezala ararteko ibeni, fabora nintzala, baiña hain zorte txarrez ezen lizunak ekarri zizkidan, ezen pentsamendutan atsegin hartzen nuen, eta Ama Birjiña berarekin hartzen nuen plazer, goatzen nintzen!

Bigarren erremedioa erabili nuen, borondatearen atheak ioten dituzten gogoeta gaixtoei lekhurik eta ostaturik ez emaitea hain zuzen, eta heken lekhuan bertze gogoetari lotzea. Hunela, ahalegindu nintzen emaztetan ez pentsatzen, baizik eta inozentziaren iduri diren ume jolaskorretan. Ordea okerrago zelakoan nago, zeren pentsatze hartarik ethortzen hasi zitzaidan atsegin hartzea eta desiratzea, eta desiratzetik laster izango zen obratzea ene meza-mutil gaztearekin. Ematen nuen gizon putanera, ez obraz baiña bai gogoz; Sodomako hiri hark egindako bekhatu kiratsetan nintekeen ni neu ere!

Gerora begira, inportantea zen ez alfer egoitea: egitekotan ibiltzea, trabaillatzea, eta zerbaitetan enplegatuta egotea, zeren alferkeriatik heltzen da emaztetako erhoitzapena eta amurusia. Hala fintki estudiatzen eta bethi...

*14. orrialdean jarraitzen du.*

# AMODIOZKO GUTUNEN XI. LEHIAKETA

GOIO ARANA

**LEHIAKETAK/ AMODIOZKO GUTUNEN XI. BERRIGARA LEHIAKETAKO SARIDUNAK**

# Axularren amodiozko gutuna

## AXULAR ABADEAK JOANNA BORDELERI IDATZITAKO AMODIOZKO GUTUN BATEKIN IRABAZI DU EIBARTAR BATEK AURTENGO LEHIAKETA

LEIRE KORTABARRIA

**Eibar eta Elgoibar aldera joan dira aurten Bergarako Jardun elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketako bi sariak. Hala erabaki zuen joan den astelehenean batutako epaimahaiak, eta lan finalista guztien kalitate ona azpimarratu zuten epaimahaikideek.**

Iñaki Serrano 29 urteko eibartarrari egokitu zaio Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketako lehenengo saria, 450 eurokoa, Axular abadeak Joanna Bordeleri idatzitako gutun batengatik. Axularrek serora bidali du Joanna, tentazioa uxatzeko, eta neska urruti dagoela idazten dio gutun hori.

Bertol Arrieta iazko irabazleak, Sustrai Colina bertsolariak, Iban Zaldua idazleak eta Jabier Muguruza abeslariak osatutako epaimahaiak lore ugari bota zizkion irabazleari: “Literarioki bikaina eta orijinala da. Heldutasuna nabari zaio egileari eta asko irakurri duen batek egina behar du izan”, esan zuten.

Bigarren saria, 240 euro, 19 urteko Uxue Alberdi elgoibartarrarendako izan da, eta Irakurle Gazteen saria ere Uxuek berak eskuratu du; maitasuna adierazteko, kolore eta zaporeen gaineko metaforak erabiltzen ditu: “Freskoa da, erritmo biziduna, eta iradokitzeko indarra du”, epaimahaiaren iritziz. Bi irabazleek jendaurrean irakurriko dituzte gutunak San Valentin egunean Bergaran izango den ekitaldi baten.

Bestalde, Amodiozko Testu Mezuen Lehiaketa Gorka Beobide 25 urteko azpeitiarrak irabazi du. 90,15 euro eta opari bat eramango ditu. Sail berria zen hori lehiaketan, eta erantzun ona izan du: 57 mezu jaso dituzte.

**AURTEN, EHUN GUTUN**

Horiek izan dira, bada, Euskal Herrian gero eta oihartzun handiagoa lortzen ari den lehiaketa baten emaitzak. Hamaika alditan, 1.732 gutunek hartu dute parte lehiaketan; aurten, ehun jaso dituzte.

Aurten ere lehiakide gehienak emakumezkoak izan dira (%71), eta parte-hartzaile gehienak gipuzkoarrak ziren (%64). Hasieran, ibarreko gutun gehiago jasotzen zituzten; aurten, gutunen %9 ziren Debagoienekoak.

Estiloari begira, erromantizismoa eta nostalgia izan dira nagusi aurten, erotismoaren edo umorearen gainetik.



L.K.

**Miguel Angel Elkoroberezibar, Bertol Arrieta, Eider Arzelus, Sustrai Colina, Iban Zaldua eta Jabier Muguruza, epaimahaikideak.**

### Amodiozko SMS mezuen lehiaketa

**1. SARIA**

**Zuretzat;(m)imoak,(a)isia,(i)lusioa,i(t)xaropena,d(e)sioa,guzti(a)!**

**BESTE BATZUK**

**Zu ordzkatuko zaituenik ez dt aurkituko, nre2hotz guztia okupatu daukzu, ez dakit zr dzun, baina zurkin pntsatzeak txoratu itn nau. Maite zaitut!**

**Iep wapisimo!erran nai datzt lenengo lagun 1 zinla,gro ilusio 1 ta orain nre bihotzean dagon gauzaik edrena!!Aunitz mait datzt mxu aundi 1.**

*13. orrialdetik dator.*

...trabailluan hasi nintzen, azkenean gaixotu arte, hain zorigaixtoz ezen zu prestatu baitzinen nire ohea gau eta egun zaintzeko. Halako midikuarekin, ene gogo itsuak ez zuen azkar sendatu nahi izan, haragi tentamenduen galgarri!

Zurekin haragiak bortitzki eta bero hutsez tentatzen ninduen, hain irakin ezen barutuagatik, disziplinatuagatik, eta bertze anhitz enseiu eginagatik, ezin iraungi bainezakeen su hura. Hartara, laugarren erremedioan, konsideratu nuen zein apurra eta laburra izan behar zuen emaztetako plazer hura; hasi zeneko akhabatu zela, eta are batzutan plazer baiño desplazer hegiago izaten zela, hartan egoten baita zenbait eskastasun eta deskontentamendu. Haragiaren plazera ezta behin ere guztiz asetzen, eta ez osoki iraungitzen, eta berriz berehala gosetzen eta iratzartzen da lehen baiño bizikiago. Gaiñera, frogatu nuen pentsatzea hartako plazerak zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten zuen, zeren plazera iragan bezain fite, han izanen zen desplazera, damua, atsekabea eta egin ezpanu nahia. Ianko maitea, hain nengoen zoro eta itsu! Haragiaren aphetitua ez nuen nehoiz usatu, baiña, Joanna, plazer hura ezin zen laburra eta ttipia izan, bethikoa baiño! Zu erdietsi eta gozatu bazintut, higuinduko al nintzen, ala urrikia ez zen garestia izanen?

Gizonezkook emaztekin borz zensuak (ikhustea, dastatzea, enzutea, usnatzea eta ukitzea) behar ditugu guardiatu eta begiratu. Zensu gauen atheak behar dira hertsi, eta lehenbiziko athea eta portale prinzipala da begietako bista, amorioa begietatik sartzea baita. Hunela, gauza ona neritzon zure inguruan gaixotasun bat figuratu eta begiak benda batekin estalita ioaitea. Baiña orduan zensu korporala, zein baita ukitzea, eskuztatzea eta hazkatzea, erabiltzen zenuen ni hemendik harat eramateko. Ukitzeak hurbilletik akometatzen du, urruitititk berotzen du suak, zer eginen da bada hurbil dadinean? Gaiñera, ene gaixotasunaz urrikalduta, hitz leunaz, solhas graziatzuaz, eztiaz eta emeaz mintzatzen eta zuretakotzen ninduzun. Nire haragia lehen geldi eta sosegu onean zegoena, bertze haragiagan hurbiltzeaz pitzten zen, ernatzen zen, etsai bihurtzen zen!

Nire konzientzian barrena kasto, garbi eta onhest izaitea ezinezkoa zen, naturalezaren aldetik ez nengoen behin ere segur emakumeen artean. Hartan, zurekin eta herriko beste emakumeekin etsaitzen esportsatu nintzen, emazte batekin minzatzean, burua bertze alderat itzultzen; handik aurrera traturik gabe, garbiki eta prestuki bizitzeko. Halere zure irriño bakan bat nahikoa izaten zen gaixtakeriz kutsatzeko.

Pulpitotik klar eta ozen munduan zegoen etsairik handiena eta perilosena haragia jartzen nuen, eta herriko usantzak aldatzea agindu nuen konfeionarioan halabeharrez entzuten nituen haragi bekhatuak errepika ez zitezen.

Batetik, arnoa debekatu nuen, zeren arnoak erhokeriak egiteko balio du; hura den lekhuan da haragiaren desira desordenatua, eta ian edanean haragiaren plazer nahia hartzeko gutiziak eta kilikadurak piztten dira. Nik neuk bakarrik hartu nezakeen arnoa eukaristian, eta iakizu komuniatzean zensua galtzen nuela ostia zure ahoan sartzearekin bat behatza eta beste zerbait zupatzen zenidala irudikatzen bainuen.

Bestetik, dantza eta festak debekatu ziren, zeren kastitatea begiratu nahi duenak eztu dantzatu behar; dantzatik ezagutzatan sartzen da, trebatzen da eta anhitz okasino behar eztenik sortzen da. Halakotan, emateak usain onez betherik ibiltzen dira eta haiei dagokien baiño soiñeko arropa ederragoak erabiltzen dituzte. Hek guztiak dira banaloriak, desordenuak, eta desonhetskeriaren seiñaleak, bekhatu egiteko eta eragiteko bideak, eta kastitatearen galgarriak.

Sinhets egin nahi nuen abstinentziatik, neurriz bizitzetik, helduko zela guztion debozinoa eta saindutasuna, eta Iankoaren oniritziarekin bat iokatzen nuela. Azkenean, populua Elizaren kontra jarri nuen, eta emakumeen kexak Tursko Arzipizpikuari iritsi zitzaizkion.

Hari nire bekhatuak aitortu nizkion. Hark, exenplo onaren emaiteko eta eskandaluaren eskusatzeko nuen oligazinoa orhoitarazi eta gomendatu zidan hunela jokatzeko. Haragia ezin garaituta, Joanna, zure gurasoak konbentzitu nituen Bordele aldeko konbentu baterat serora bidaltzeko. Zure senarra izan behar zuenaz apartatu zintudan, deabrua uxatzea eta mundu hunetan arima salbatzeko, ordea ifernutik libratu arren nire kontzientzia arrenkuratzen da.

Hargatik, nire kargen arintkarri, azken orenean nahi nizkizun malizia hauek kofesatu, eta halaber erran konsolamendu handia dela pentsatzea zureganako amorio itsuak zeruko lorian ikhus dezakela argi.

Iainkoak hala nahi duela

P. De Axular

**MUSIKA/ NAROA ENEKOTEGI MEZZO-SOPRANO DEBAGOIENDARRA, OPERAKO IZAR BERRIA**

**NAROA ENEKOTEGI** / MEZZO-SOPRANOA

# *“Barrutik ikusita, opera ez da uste bezain elitista, eta geroago eta entzule gehiago ditu”*

LEIRE KORTABARRIA

Lekeition eman ditu umezaroa eta nerabezaroa, eta gaur egun, guretik urruti bizi da, AEBetan, hain zuzen ere. Baina jatorriz Eskoriatzarra dugu Naroa Enekotegi mezzo-sopranoa. Bere ahots ederrari esker, geroago eta ezagunago egiten ari da Naroa.



GOIENKARIA

**Hainbat lekutan bizi izan zara… Zein da gaur egun zure bizilekua?**

Egun, New Yorken bizi naiz; hala ere, sarritan etortzen naiz Euskal Herrira. Normalean, Gabonetan etortzen naiz, baita kontzertuak ematera ere, uda partean, gehienetan. Eskoriatzara, jaioterrira, ere sarri joaten naiz, han familia daukat-eta.

**Zelan sortu zitzaizun New Yorkera joateko aukera eta noiztik zaude han bizi izaten?**

Txikitan, Lekeitioko abesbatzan ibili nintzen. 11 urte nituenean, Jose Ramon Arteta etorri zen, eta oso ahots ederra nuela esan zidan. Orduan, harekin jardun nuen denbora batean, kantua ikasten, eta 14 urterekin, New Yorkera lehenengo bidaia bat egitea proposatu zidan, han oso irakasle onakk ezagutzen zituelaeta. Oso epe laburrerako joan nintzen aldi hartan, baina gero, 21 urterekin, han ikasteko eta bizi izateko aukera sortu zitzaidan, eta ordutik hona han nago.

**Opera ez zitzaizun elitistegia, beldurgarria iruditzen?**

Ez; betidanik gustatu izan zait opera. Nire helburua beti aurrerago jotzea zen. Badakit kanpotik, beharbada, kutsu elitista izan dezakeela operak, baina barrutik ikusita, ez da horrenbesterako. Gainera, operarar geroago eta jende gehiago hurreratzen ari dela uste dut.

**Gurasoek zer esan zizuten New Yorkera bizi izatera joan gura zenuela esan zenienean?**

Haiek hasieratik ulertu eta lagundu didate. Lehenengo bidaian nirekin etorri ziren, irakasleak zelakoak ziren-eta ikustera. Gero, han bizi izatea erabaki nuenean, 21 urte nituen, eta mentalitate helduagoa. Dena dela, hasieran, gaizki pasatu nuen: ahalik eta gehien ikasi nahi nuen, eta horretarako oztopo nagusia hizkuntza zen. Hasieran, eskolak hartzera lagun batekin joaten nintzen, eta hark itzultzaile lanak egiten zituen… Herri txiki batetik New Yorkera jauzi egitea *txoke* handia izan zen. Baina orain, gozatu ere egiten dut hiriaz.

*“Kontzertu asko eskaini ditut, eta maiatzean egingo dut nire lehenengo opera”*

*“Operan aurrera egiteko garrantzitsuena da irakasle aproposena aurkitzea”*

*“New Yorken bizi izatea ‘txokea’ izan zen hasieran, baina orain, hiriaz gozatu eta guzti egiten dut”*

**Zure iritziz, operan aurrera egiteko ezinbestekoa da atzerrira joatea?**

Ez, hemen ere egin daiteke arlo horretan lan. Erabakigarriena da zure irakaslea non dagoen. Batzuek hemen aurkitu dute; beste batzuek, Parisen, Londresen… Horrek erabakitzen du guztia. Ni neu, orain, irakasle pribatuekin nabil, niretako egokienak aurkitu ditudalako.

**Zeintzuk dira epe laburrerako zure helburuak?**

Orain arte, kontzertu dezente egin ditut, eta maiatzean, nire lehenengo operan hartuko dut parte, New Yorken bertan. Edozelan ere, oraindik ez dakit ze opera egingo dudan.

**Eta epe luzerakoak, berriz?**

Egunetik egunerako xedeak jartzen ahalegintzen naiz. Edozelan ere, nire eredua Marilyn Horne mezzo-sopranoa da, eta haren bidea jarraitu gurako nuke. Horixe da nire helburu nagusia.

**LITERATURA/ XVI. JOKIN ZAITEGI SARIA EMAN BERRI DU AED ELKARTEAK**

# Nobel sariak, euskaraz

URTZI URRUTIKOETXEAK ITZULIKO DU 2003KO LITERATURAKO NOBEL SARIA

**Urtzi Urrutikoetxea idazleak (Bilbo, 1977) irabazi du Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak antolatu zuten Jokin Zaitegi itzulpen beka emateko lehiaketa.**

Hamabost lehiakide aurkeztu ziren aurtengo Jokin Zaitegi lehiaketara. Horien artean, Urtzi Urrutikoetxea kazetari eta idazle bilbotarraren lana aukeratu du Ibon Uribarrik, Joxe Azurmendik eta Xabier Mendiguren Bereziartuk osatutako epaimahaiak, joan den egubakoitzean egindako batzarrean. Proiektu guztiek kalitate ona zutela azpimarratu zuten.

Urrutikoetxeak 3.500 euroko beka irabazi du, Imre Kertész aurtengo Literaturako Nobel saridunaren *Sorstalanság* eleberria euskarara itzultzeko. Liburua Elkar etxeak argitaratuko du.

**ALEMANEKO BERTSIOA**

Urrutikoetxeak honakoa dio: “Alemaneko itzulpenetik abiatuko naiz, eta ingeleseko eta frantseseko itzulpenak erabiliko ditut kontrastatzeko”. Eskarmentua du itzultzaile lanetan Urrutikoetxeak, baina zera adierazi du: “Orain arte lan laburrak, poesiak… itzuli izan ditut, eta hau izango da egingo dudan lehen itzulpen benetan garrantzitsua”. /L.K.



**Urtzi Urrutikoetxea bilbotarrak irabazi du beka deialdia.** ARGAZKI PRESS

# Otsailak 7-14

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### ARETXABALETA

► **Pausoka haur eskolak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalduko du otsailaren 3an, 14ra arte. Argibideetarako, deitu lehenbailehen 943 77 03 77 telefonora.

► **Udal euskaltegian izena emateko epea** zabalik dago, otsailaren 14ra arte. Argibideetarako, deitu 943 79 21 68 telefonora.

### ARRASATE

► **Erdu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Horretarako, deitu 943 77 03 69 zenbakira, otsailaren 20an, azken egunez.

### BERGARA

► **Akulu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Otsailaren 20ra arte izango duzue horretarako aukera. Deitu 943 76 05 18 zenbakira.

► **Mariaren Lagundia** ikastetxeak zabalik du matrikulazio epea, hilaren 14ra arte. Argibideetarako, deitu 943 76 25 40 edo 943 76 25 41 telefonoetara.

### DEBAGOIENA

► **Arizmendi ikastolak** Arrasate eta Eskoriatzako guneetarako matrikulazio epea zabaldu du, otsailaren 10era arte. Informazio gehiagorako, deitu 902 11 20 25 telefonora.

► **Arizmendi ikastolak** haur hezkuntzako bere proiektua azaltzeko ekitaldia antolatu du biharko, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, 11:30ean. Besteak beste, hitzaldi informatiboa, Oihulari Klown-en emanaldia, luncha eta puzgarriak izango dira.

► **Goieskolak, Debagoieneko euskal eskola publikoak,** Eskoriatzako Luis Ezeiza (haur hezkuntza) eta Aretxabaletako Kurtzebarri (bigarren hezkuntza) ikastetxeetarako matrikula epea zabalduko du otsailaren 3tik 15era arte. Deitu 943 79 57 40 edo 943 71 49 38 telefonoetara.

### OÑATI

► **Oñatiko Euskal Eskola Publikoak** datorren ikasturterako bere eskaintza azaltzeko ekintzak antolatu ditu. Bihar, zapatua, ate ireki jardunaldia izango da haur eta lehen hezkuntzako ikasle eta gurasoendako. Errekaldeko ikastetxea zabalik izango da, 16:30etik aurrera.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► ***Espacios en construcción* erakusketa** du zabalik Juanjo Altuna Akizu margolariak Maala kaleko Arregi Enmarkazioak dendan.

► **Felix Ayala margolariak** bere lan berrien erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Hilaren 23ra arte ikusi ahal izango duzue.

### ESKORIATZA

► ***Drogak: gizarte-gaia* erakusketa** izango da hilaren 10etik 16ra bitartean, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara, egunero, eta, horrez gain, 13:00etatik 14:00etara ere bai, domeketan.

## JAIAK

### OÑATI

► **Santa Eskolastika eguna** da gaur, otsailak 7. Elkar Hezi ikastetxeko zaindaria denez, jaialdia antolatu dute gaurko eta biharko, haur eta lehen hezkuntzako ikasleen gurasoendako eta, oro har, oñatiar guztiondako. Jaialdia Benediktarren egoitzako aretoan izango da, gaur, 18:30ean, eta bihar, 17:00etan.

► **Hamabostaldi kulturala** antolatu du Errekalde Herri Eskolak, otsailaren 16ra bitartean. Honako ekitaldiak izango dira datozen egunotan: gaur, egubakoitza, Txan magoaren emanaldia, Santa Ana antzokian, 18:30ean, 6-12 urte arteko umeendako; egun eta ordu berean, Errekalde Herri Eskolan, ipuin kontalari baten saioa izango da, sei urtetik beherako umeendako. Sarrera doan izango da azken honetarako. Bestalde, datorren eguaztenean, hilak 12, Imanol Biainek *Oñatiko Euskal Mitologia* hitzaldia egingo du, kultura etxeko aretoan, 18:30ean. Sarrera doan izango da. Ikastetxeak antolatu arren, oñatiar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Irak-eko gerraren aurkako** sinadura bilketa ekitaldia antolatu du Ezker Batua alderdiak biharko, zapatua, Seber Altube plazan, 19:00etan.

► **Irak-en inguruko hitzaldia** egingo du Carlos Barea adituak eguaztenean, hilaren 12an, Monterron jauregian, 19:00etan.

► **Bolibiako Ayllu komunitate inkaikoaren gaineko** hitzaldia eta film labur emanaldia izango dira

**WHITE FLAG**

**+ KEN STRINGFELLOW**

**TALDEA**
**Kim Crimson = Ken Stringfellow**
**Pat Fear = Bill Bartell**
**Trace Element = Tracy Harrison**
**Viv Vacuum = Eric Erlandson.**



**ELGETA • OTSAILAK 8 • ZAPATUA**
**ESPALOIA ARETOA • 5 euro**
**ANTOLATZAILEAK: ELGETAKO UDALA / GAZTEMANIAK**

**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN LAN POLTSA**

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN lan poltsa bat sortu nahi da.

**Baldintzak:**
• Batxilergoa, Eskola Graduatua, LH I edo baliokidea
• Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

**Izena emateko epea**: Otsailaren 8tik 17ra.

**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: *arrasate-mondragon.org*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal saila**

**ENPLEGU TEKNIKARIA**

TEKNIKARI bat kontratatu nahi da aldi baterako eta egun erdiz Enplegu eta Garapen Ekonomikoko sailerako.

**Baldintzak:**
• Edozein diplomatura edo unibertsitateko erdi mailako titulua.
• Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

Interesdunak otsailaren13an aurkeztu behar dira goizeko 10:00etan Udaletxean.

**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: *arrasate-mondragon.org*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal saila**



► KONTZERTUAK

## EKON ETA JOUSILOULIREN KONTZERTUA, BERGARAKO JAM ARETOAN

Debagoienarekin zerikusi handia duten bi euskal talderen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, otsailaren 14an, Bergarako Jam aretoan. Alde batetik, Ekon talde arrasatearra berriro agertokian ikusteko eta entzuteko aukera izango dugu. Talde mondragoetar honek hiru disko atera ditu honezkero; azkena, *Salatzen dut*, oraindik fresko dago, eta bertako doinuak eskainiko dizkigute arrasatearrek. Bigarren taldea, Jousilouli, ez da sortzez ibarrekoa, lezotarra baizik; hala ere, Debagoienean egin dute euren ibilbidearen zati esanguratsu bat. Besteak beste, 2001ean Jam aretoan eskainitako kontzertu baten ondoren hasi ziren diskoa grabatzen; eta Arrasateko Shot! estudioan grabatu zuten *Terrorista* iazko diskoa.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Otsailaren 14an, egubakoitza. **Ordua:** 22:00etan.



## WHITE FLAG: 'POWER POP'-A KALIFORNIATIK

Kaliforniako basamortuan bizi den komunitate baten sortu zen White Flag. *Power pop*-a eta amerikar punka egiten dute, eta, besteak, beste, Bad Religion eta Hole taldeetako kideak pasatu dira White Flag-etik. Elgetako Espaloi aretoan joko dute, bihar, zapatua, 22:00etan.

otsailaren 14an, egubakoitza, Monterronen, 19:00etan. *Mondragoetarrok* taldeak antolatu du.

### BERGARA

► **Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako** sari banaketa ekitaldia izango da datorren egubakoitzean, hilak 14, Zabalotegi aretoan, 19:30ean. Irabazleek euren gutunak jende aurrean irakurriko dituzte.

### ESKORIATZA

► ***Gure beldurrak berdintasunaren aurrean* hitzaldia** egingo dute Koro Erdozia eta Agustin Untzurruntzaga adituek datorren martitzenean, hilaren 11n, Luis Ezeiza herri eskolaren egoitzan, 18:00etan. Ikastetxeak antolatutako aste kulturalaren barne dago ekintza hori.

### OÑATI

► ***Haurrak ondo elikatzearen garrantzia* delako hitzaldia** izango da datorren eguaztenean, hilaren 12an, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► **Etxebizitzaren arazoaren gaineko hitzaldia** egingo du Ezker Batua alderdiak datorren eguaztenean, hilak 12, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Javier Madrazo Etxebizitzako sailburua, Javier Deán sailburuordea, eta EBren Oñatiko hautagai Karmelo Pérez izango dira bertan.

► **Aratuste herrikoian,** martxoaren 1ean, dantza egiteko aukera dute oñatiar guztiek. Entseguak martitzenero, 20:00etan, eta zapaturo, 12:00etan, izango dira, Oñatz dantza taldearen egoitzan, Errekalden. Parte hartu gura duten herritar guztiondako deialdia egiten dute antolatzaileek.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Gorputz lan bioenergetiko taldea** antolatu du Arrasateko Yoga Elkarteak. Martxoaren 26ra arte egingo dute lan, eguaztenero, 18:30ean. Izena emateko, jo lehen bailehen elkarteko kideren batengana.

### BERGARA

► **Internet bidez lanpostua zelan bilatu** ikasteko doako seminarioa izango da otsailaren 13an eta 14an, KZGunean, 11:00-13:00. Argibideetarako, deitu 943 76 73 24 telefonora.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Black Nasa eta Aytoback Kreisor** taldeen emanaldia izango da datorren eguenean, otsailaren 13an, Jam aretoan, 21:30ean. Sarrerak zortzi eurotan salduko dituzte, aldez aurretik; leihatilan, hamar eurotan.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***Silencio roto***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***El gran dictador***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:15, 19:30, 22:45.
Domeka: 16:15, 19:30.
Astelehena: 19:30.

***Historias mínimas***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Transporter***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egunero: 17:30.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Hable con ella***
Egubakoitza eta domeka: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al sur de Granada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***The good girl***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Ocho millas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Amigas a la fuerza***
Egubakoitzetik domekarra: 17:30, 20:15, 23:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 19:45, 23:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:45, 23:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La chica de París***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 23:00.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:45.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 17:15.
Zapatua eta domeka: 16:30.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Oscura seducción***
Egubakoitza: 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Dolls***
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

***El jardín de la alegría***
Egubakoitza eta domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Un hombre sin pasado***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Los diablos***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 20:00, 22:30.

***Bienvenido, mister Marshall***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Spy kids 2, la isla de los sueños perdidos***
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:30.

***La luz prodigiosa***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Ciudad de Dios***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **STER ZINEMAK**

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 20:45, 00:00.
Domeka: 20:45.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 18:25, 20:25.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:25, 20:25.

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza: 19:30, 22:20, 01:10.
Zapatua: 16:35, 19:30, 22:20, 01:10.
Domeka: 16:35, 19:30, 22:20.

***Spy kids 2, la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 15:55, 18:00.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Zapatua: 16:30, 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Domeka: 16:30, 18:25, 20:20, 22:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 17:35.

***Transporter***
Egubakoitza eta zapatua: 22:25, 00:35.
Domeka: 22:25.

***Oscura seducción***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 20:05, 22:05.

***La flor del mal***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 20:30, 22:45.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

***Ciudad de Dios***
Egunero: 17:55.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza: 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 11:40, 15:55, 18:45, 21:30.

***Amén***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00, 00:25.
Domeka: 19:30, 22:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:30, 23:15.
Domeka: 11:30, 16:00, 19:30.

***The good girl***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:45, 19:45, 21:40, 23:40.
Domeka: 11:45, 15:45, 17:45, 19:45, 21:40.

